




*Cantonigro*eko Nazioarteko Musika Jaialdia 2010





txinpart⁴⁸

www.hurtzaroikastola.net

L.G.: SS-129/2001



Aurkibidea

Hurtzaro informatzen.....	3
Gurasook jakin dezagun	12
Euskararen txokoa	21
Hatzak bete lan	26
Gu ere kazetari	39
Nahaste borraste.....	42

ARGITARATZAILEA

Hurtzaro ikastola

Elorondo, z/g

20159 Oiartzun

© 943 49 16 59

oiartzun@ikastola.net

DISEINUA, MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA
antza Komunikazio Grafikoa

Orain hasi berriak...

10-11 ikasturteko lehenengo TXINPART alea dugu esku artean. Irailean ikasturte berria zena, bere bidea egiten ari da dagoeneko. Martxan jarriak ditugu gure indar eta ilusio guztiak oraingoa ere ikasturte oparoa izan dadin:

- 2 eta 3 urteko ikasle berriei ongi etorria egin diegu, eta erabat egokitu dira dagoeneko. Bide batez, ongi etorri familia berri guztiei.
- Ikasturteko lehen hiruhilabetekoa egina dugu dagoeneko: ikasle, irakasle, guraso... guztiok ari gara horretan.
- Guraso ordezkariak ere zuen eginkizunetan hasiak zarete.
- Abian jarriak ditugu ikastolako proiektuak...

Ale honetan, datorren ikasturtean seme-alabak ikastolan matrikulatzeko asmoa duten gurasoak ere agurtu nahi ditugu. Zuek ezagutzeaz gain, gure proiektuaren aurkezpen laburra egin nahi dizuegu; ea gustukoa duzuen.

Baina ez gara gehiago luzatuko, Txinpart honetan aurkituko baituzue horren guztiaren berri.

Bertan ikus daitekeenez, buru-belarri jardun dugu lanean eta konturatu orduko, Gabonekin batera, oporrak iritsi zaizkigu. Haurtzaro ikastolako partaide zaren guztioi eta herriko ikastolazale guztioi, Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu.

Eguberri eta Urteberri on!



Haurtzaro ikastola

DENON ESKURA

Gabonetako oporren bueltan, ikastolan matrikulatzeko epea irekiko du Hezkuntza Sailak. Iazko ikasturtean otsailaren 1etik 12ra izan zen horretarako aukera, eta gutxi gora-behera, data horietan izan ohi da ikasturtero.

Egun, eta zorionez, gure ikastolan matrikulatu nahi izan duten herritar guztiek izan dute lekua horretarako; eta aurren ere ahaleginak egingo ditugu horrela izan dadin: plaza kopuruei nahiz egoera ekonomiko ezberdinei irtenbideak emanez. Familia bakoitzaren egoerari aurkitzen diogu

irtenbidea, izan ere, hori da gure helburuetako bat: herriko proiektu hau herritar guztien eskura jartzea.

Erabaki garrantzitsuak hartu behar direnean, denbora garrantzitsua dela jakin badakigu, eta horregatik, gure aholkua lehenbailehen gurekin harremanetan jartzea da. Kontsultaren bat egin nahi izanez gero, edozein momentu da ona horretarako eta laguntzeko prest gaituzue.

ZATOZ ETA INFORMATU ZAITEZ



Batzar Nagusia



Joan den abenduaren 17an ospatu zen Ikastolan Urteko Ohiko Batzar Nagusia; bertan landutako gaiak ikastolako familia guztiak jasoak ditugu aurtengo txostenean. Hona hemen laburbilduz Ikasturteko Planaz informazio esanguratsua:

Bazkideen ordezkaritzan, AURKEZTU ETA ONETSI DIRA

- Kontseilu Errektoreko ordezkari berrien izendapena.

AURKEZTU ETA ONETSI DIRA

- Aurreko Batzarraren akta
- 09-10 ikasturteko gestio txostena eta 10-11ko gestio plana
- 09-10 ikasturteko kontuak, eta 10-11 ikasturteko aurrekontua

URTEKO GAIAK

- IKASTOLAKO PLAN ESTRATEGIKOA: 09-10 ikasturteko lorpenak aipatu dira eta 10-11 ikasturteko erronkak zein diren aurkeztu da.
- UDALAREKIN HARREMANAK: Udala eta ikastolaren artean elkarlanean izandako lorpenak aipatu dira eta 10-11rako ditugun proiektu berriak. XORROLAREN erabilera DBHn, Partuer-goko eraikuntza berria, Ikastolaren eraikuntza berrirako lurren lagapena...
- KEI, Kalitate Egitasmo Integrala. KEI proiektua zer den aurkeztu da. Proiektu honetan sartzearabaki zuenez iazko ekainean Kontseilu erretoreak, lanketa honetan ari garela berri eman da.

Batzarra Luntx batekin eta giro onean bukatu genuen.





Ekintza

estraeskolarrak

Azken urtetan bezala, aurten ere Haurtzaro ikastolako eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza zabala izan da. Urtero kirol ekintzak eta kultur ekintzak eskaintzen zaizkie ikasleei.

Eskolaz kanpoko ekintza hauetako batzuk eguerdietan izaten dira eta beste batzuk arratsaldean. Gai bakoitzerako prestakuntza duten monitoreek eramaten dituzte aurrera saio hauek.

Kultur ekintzen artean ondorengo eskaintza dugu:

EKINTZAK	MONITOREAK	TALDE KOPURUA	IKASLE KOPURUA
Jolas Txokoa	Gorka Irigoyen	5	66
Eskulanak Marrazketa	Iratz Inziarte	5	59
Dantza Garaikidea	Ixiar Oria	6	81
Malabareak	Maider Olaizola	3	28
Euskal Dantzak	Alaitz Bergaretxe, Aritz Salamanca, Garazi Lekuona, Iraia Moreno, Eneritz Toledo, Garazi Aramendi, Xuban Iragorri	13	116
Dantza Txapelketak	Aritz Salamanca, Lorena Zalakain	2	5
Abesbatza	Maddalen Dorronsoro	1	29
Bertsolaritza	Karmele Mitxelena	2	9



Kultur ekintza hauen artean, zenbait ekintzak urtean zehar jarduera bereziak izaten dituzte eta beste batzuk ikasturte amaierako ikastolaren egunean.

Euskal dantzen kasuan, talde handia dugu, neska mutilez osatua eta inude-artzainen desfilean, inauterietan intxixuekin, Euskal Herriko dantzari txiki egunetan, auzoetako jaietan, Xanistebanetan, ezkontzetan eta suertatzen diren bestelako emanaldietan parte hartzen dute dantzariak.

Dantza txapelketen kasuan, urtean zehar gaztetxoaren artean Euskal Dantzarien Biltzarrak antolatzen duen bakarkako txapelketan parte hartzen dute eta oso emaitza onak lortzen dituzte.

Bertsolaritzaren kasuan, Gipuzkoako eskolarteko txapelketan parte hartzen dute bertsolaritzako ikasleak.

Kultur ekintzen aipamenarekin bukatzeko, aipatu beharra dago Ikastolaren Egunaren bueltan, jarduera batzuk antolatzen ditugula eta

bertan parte hartzen dutela: bi urtez behin Haurtzaro Dantza Taldeak ikasturte amaierako emanaldia eskaintzen du eta gainontzeko ekintzen erakustaldi bikaina izaten da Ikastolaren Egunean bertan; dantza garaikideko kide guztiak, malabaretako taldeak, bertsolariak, eskulan eta marrazkien erakusketa ikusgarria, urtean zehar egindako material guztiarekin.

Abesbatza dugu ekintza berria aurten eta erantzun ona izan du ikasleen aldetik, gure ikasleak abeslari bikainak direla erakutsiko digute. Ea aukera dugun ikasturte amaieran ere beren saioa ikusi eta entzuteko.



Kirol ekintzen artean ondorengo eskaintza dugu:

EKINTZAK	MONITOREAK	TALDE KOPURUA	IKASLE KOPURUA
Atletismoa	Periko Sanroma, Xabi Salaberria	1	23
Eskola kirola: BENJAMINAK	Maitane Toledo, Manex Suarez, Beñat Apaolaza, Lur Mitxelena	4	42
Eskola kirola: ALEBINAK	Mikel Kordero, Gorka Lapazaran, Gorka Irigoyen, Oier Moreno, Gexan Mendizabal, Oier Carabias	6	61
Kenpo	Iñaki Arbelaiz	2	17
Xakea	Asier Urretabizkaia	1	7

Kirol ekintzei dagokienez, eskaintzari erantzuten dioten kirolari neska-mutil asko ditugu eta urtean zehar ere jarduera ezberdinetan parte hartzen dute.

Atletismoaren kasuan, asteburuetan saio, txapelketa eta hainbat proba egiten dituzte modalitate askotan bakoitzak dagokion kategorian.

Kenporen kasuan, urte bukaeran egiten dute proba monitoreaekin eta ikasturtean zehar ikasitako guztiak praktikan jartzen dituzte erakustaldi bikaina gurasoei erakusteko asmoz eta, beraiek esaten duten bezala, gerrikoaren kolorean aurrera pausoak egiteko helburuarekin.

Eskola kirola ere parte hartze aldetik aipatzeko moduko ekintza dela ez dago zalantzarik. LH 3, LH 4, LH 5 eta LH 6. mailako ikasleei zuzendutako jarduera da eta helburu nagusia da kirola praktikatzeari eta kirol modalitate batzuk ezagutzeari. Astebururo-astebururo, jarduera ezberdinak egiten dituzte.

Xakea izan da kirol ekintzen arloan aurten hasitako jarduera berria. 7 neska mutil aritzen dira aditua den monitorea batekin.

Ikusi bezala, Haurtzaro Ikastolako eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza era askotakoa da eta 29 monitorea, koordinatzaile orokor bat, eskolaz kanpoko guraso taldea eta ikastolako zuzendaritza taldeak osatzen dugu eskolaz kanpoko ekintzen talde handia hau.





Portzuergotik Berriak

Kaixo lagunak!
Gaurko honetan, haur eskola zahar,
ttiki eta polit honetatik idazten
dizuegu. Karrikatik alegia!



Hemen etxean bezala gaude eta, auzoan berri-kuntzak egin arren, gure ttiki hauentzat, auzoak berdea eta baliabidez betea izaten jarraitzen du.

Haur-eskola ere gero eta zaharrago dago, baina urtero aurpegia garbituz, Karrikako pareta zahar hauek berpizten direla dirudi.

Eguneroko irteerak egiten jarraitzen dugu, Triniren oiloak eta Presondoko ahateak bisitatzen eta erreka ondoko bazterretan paseatzen.

Gure haur-eskolak ere badu lur eremu bat eta aurtentzen baratza ttiki bat egitera animatu gara, ttiki-ttikia, gure tamainakoa.

Belarra kendu, laiarekin lurra irauli, gorotza bota, ondo nahastu eta barazki batzuk jarri ditugu.

Gure lana ikusita, Trini ere segituan animatu zaigu eta baratzetik azelga landareak eta loreak ekarri dizkigu.

Zein den gure asmoa? Ba... Haurrek baratza eza-gutzea, landareak errespetatzen ikastea, gelan erabiliko dugun materiala sortzea... Adibidez, sehaska geletarako kalabaza ttikiak edo sukalde txokorako barazkiak eta... Nola ez! gure helduenek, bi urteko haurrek, hemendik aurrera, udaberri aldera, haziak lantzen hasten direnean, leku bat izango dute berek ereindako hazietatik ateratako landareak landatu eta ematen duten fruituak ikusteko.

Pozik hasi gara lan berri honetan eta ideia berriak sortzen ari dira. Den-dena kontatuko dizuegula-koan... Besarkada handi bat Karrikako txoko honetatik.

SEASKA ETA HAURTZARO, ETORKIZUN OPARO

Jakina da ikastolok administrazioetatik jasotzen ditugun oztupoak ez direla makalak, ekonomikoak bereziki, eta Ipar Euskal Herriko ikastoletan ez da gutxiago gertatzen. Halaber, ikasturte hau bereziki larria da ekonomikoki Seaskarentzat, hainbat egitasmo ateratzeko beharrezkoak dituzten diru-sarrerak murriztu baitizkiete. Hori jakinik, Haurtzaro ikastolak aurtengo Xanistebanetan jarritako txosnan bildutako diruaren zati bat Seaskako ikastolei ematea erabaki zuen. Eta erabakia gauzatu egin da.

Argazkian ikus daitekeenez, dirua ematerakoan bi erakundeetako ordezkariak izan ziren Haurtzaro ikastolan: batetik, Iñaki Irastortza, Haurtzaro ikastolako lehendakaria, eta Sorkunde Lekuona, zuzendaria; eta bestetik, Paxkal Indo, Seaskako lehendakaria. Bihoztzez eskertu zigun Paxkalek Haurtzaro ikastolaren

nahiz Oiartzungo herritarren elkartasun keinua, eta Iparraldean ikastolei eta euskarari bultzada emateko baliagarria izango dela adierazi zuten Seaskako ordezkariak.





Eider Tome eta Ane Lizarragaren argazkia



HAURTZARO IKASTOLAKO III. ARGAZKI LEHIAKETA

Azken bi urteotan bezala, aurtan ere kurtso hasierako argazki lehiaketa egin dugu. Ohitura bihurtu den eran, lehen hiruhilekoan, ikasleen arteko zein irakasle-ikasleen arteko harremanak sendotzeko asmoz, mendi buelta egiten dugu Oiartzungo inguruetan, bide batez herria ere gehiago ezagutzeko. Ibilaldiak argazki paregabeak egiteko aukera eskaini zigun eta ikasleek ederki aprobetxatu zuten. Irudi ederrez beteta ditugu DBHko korridoreetako paretak.



Izar Aizpurren argazkia

Geroz eta parte-hartzaile gehiago dituen lehiaketa bihurtzen ari da eta aukera zabal horretatik argazki irabazlea aukeratzea oso zaila izan da. DBH 1. zikloan Eider Tome eta Ane Lizarragak ateratako argazkiak jaso zuen saria. Aipamen berezia izan zuten, berriz, hiru ikasle hauen argazkiek: Lide Ibarguren, Karen Muñoz eta Ane Lujanbio. Argazkiak ikastolatik Gurutzerako bidean ateratakoak dira. Ikasleek Urkabeko tontorretik ikus daitekeen Oiartzun bailarako paisaia ederraz gozatzeko aukera izan zuten.

DBH 2. zikloko ikasleek, aldiz, Pagoagalarrera egin zuten txangoa. Bertan ateratako argazkien artean irabazlea Izar Aizpurrena izan zen "Itzalekin jolasean" izenburuarekin. Iñigo Ruiz de Azuaren "Distirak" argazkiak, Ane Dehesaren "Garoa laino artean" argazkiarekin batera aipamen berezia jaso zuen.

Argazkilari teknikak hobetzen joan beharko dugu, beraz, datorren ikasturte hasierari begira, irabazleek ez baitute nolanahiko saria eraman.

Esterririk asko parte-hartzaileei eta animatu datorren kurtsoan ere!



Ikastolako liburutegia

Ikasturte honen hasieran liburutegia berriro dugu. Liburutegi baten ohiko erabileraz gain, eguerdietan jantokian gelditzen diren ikasleentzat, bereziki, baina edozein ikaslerentzat ere irekitzen da. Ikasleek lanak egiteko, irakurtzeko... erabiltzen dute. Animo, eta probetxua ateratzen segi!



Haurtzaro Informatzen 2010eko abendua

HAUR HEZKUNTZA 1-2-3

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
HH1	AZAROAK 10	GURUTZE AUZOA	UDAZKENAZ GOZATZEA ETA GAZTAINAK BILTZEA
HH2	URRIAK 18	GURUTZE AUZOA	GAZTAINAK BILTZEA
HH2AetaD	AZAROAK 26	CHILLIDA LEKU	ESKULTURAK IKUSTEA
HH2BetaC	ABENDUAK 1	CHILLIDA LEKU	ESKULTURAK IKUSTEA
HH3	URRIAK 7	POSTETXEA	GUTUNAREN IBILBIDEA EZAGUTZEA
HH3	URRIAK 8	URKABE	UDAZKENAZ GOZATU ETA GAZTAINAK ETA HOSTOAK BILTZEA
HH3	URRIAK 18	DONOSTIA	ZINEA IKUSTEA
HH3	AZAROAK 5	ARTIKUTZA	UDAZKENAZ GOZATZEA
HH3	AZAROAK 12	KARRIKA AUZOA	ARTZAINAREN LANA EZAGUTZEA
HH3	ABENDUA	TOLOSA	TRENEZ BIDAIATZEA

Lehen Hezkuntza 1-2

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH1eta2	Irailak 17	Donostia	Zinemaldian parte hartzea
LH1	Irailak 20-urriak 26	Elorsoro kiroldegira	Igeriketa ikastaroa
LH2	Irailak 29	Oihanlekura	Mailako ekintza
LH1	Urriak 8	Munaundi	Mailako ekintza
LH2	Urriak 27- Abenduak 1	Elorsoro kiroldegira	Igeriketa ikastaroa
LH1	Urriak 28	Luberri museora	Dinosauru gaiaren harira.
LH1eta2	Urriak 29	Udal liburutegira	Irakurzaletasuna suspertze jarduera
LH1	Azaroak 12	Erakusketa	Dinosauru maketaren erakusketa guraso eta ikasleei
LH1	Azaroak 24	Oñatira	Arrikruz haitzuloetara bisita gidatua, lehen gizakiak gaiaren harira.
LH1	Azaroak 25	Jangela gainean	Talo jatea lehen gizakien harira.
LH1eta2	Azaroak 26	Udal liburutegira	Irakurzaletasuna suspertze jarduera
LH1eta2	Abenduak 3	Euskararen eguna	Ikastolako pilota lekuan kantu emanaldia.
LH2	Abenduak 3	Itsasgela	Euskal nabigatzaile- arrantzaleen harira
LH1eta2	Abenduak 5	Iturriotz	San Nikolas txikia kantu eskean
LH1eta2	Abenduak 9	Gelan	Antzerki emanaldia euskaraz biziko kidetza jarduera

Lehen Hezkuntza 3-4

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH3eta4	Irailak 17	Donostia	Zinemaldian parte hartzea
LH3	Irailak 23	Iturriotz- Karrika- Altzibar	Oiartzungo auzoak ezagutzea
LH3	Irailak 29	Ergoien	Oiartzungo auzoak ezagutzea
LH4	Irailak 30	Lezo	Gure eskualdea ezagutzea
LH3	Urriak 8	Gurutze	Oiartzungo auzoak ezagutzea
LH4	Azaroak 12	Ikastola	Atzeritarrei elkarrizketa
LH4	Azaroak 19	Ikastola	Amerikari buruzko ikuskizuna
LH3eta4	Abenduak 3	Ikastola	Euskararen eguna ospatzea

Lehen Hezkuntza 5-6			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH5	Urriak 6	Bianditz	Ikasturte hasierako irtenaldia
LH5	Urriak 15	Miramón. Kutxaespazioko planetarioa	"Izarren hautsa"
LH5	Azaroak 26	Musika Txokoa	"Gure sustraiak lurrari lotuz"
LH5	Abenduak 9	Eskolarteko Pilota Topaketa	"Xiba"
LH6	Urriak 8	Chillida-Leku eta Hernani	Plastikako eskulturak eta gure arteko harremanak
LH6	Urriak 21	Luberri	Txanelako geologia atala sakontzea
LH6	Abenduak 1	Tolosa	Titirijaiak gozatzea

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1-2-3-4			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
DBH 1. zikloa	Irailak 15	Ikastola-Kuadrillategi egitasmoaren aurkezpena	Aisialdian lagunarteko giroan hizkuntza jarrerak sendotzea
DBH 1. zikloa	Irailak 29	Gurutze auzoa	Ikasle eta irakasleen arteko harremanak sendotzea
DBH 1	Urriak 28	Donostiako Zientzia museoa	Unibertsoaren gaia sendotzea
DBH 1-2-3-4	Azaroak 12	Donostia	Zientzia eta Teknologia astean parte hartzea
DBH 1	Azaroak 26	Ikastola	Berde-berde proiektuaren aurkezpena
DBH 1-2-3-4	Abenduak 3	Ikastola	Euskararen eguna
DBH 1-2-3-4	Abenduak 21	Ikastola-San Tomas azoka	Ohiturak eta tradizioak bultzatzea
DBH 1. zikloa	Abenduak 24	Altzibar auzoa	Ohiturak eta tradizioak bultzatzea
DBH 2	Urriak 28	Zerain/Mirandaola	Burdinola, haizeola eta zerrategia ikustea
DBH 2	Azaroak 30	Ikastola	Berde-berde proiektuaren aurkezpena
DBH 2. zikloa	Irailak 28	Pagolarre	Aisialdian lagunarteko giroan hizkuntza jarrerak sendotzea
DBH 3	Urriak 20	Berde-berde proiektuaren aurkezpena Donostiako Zientzia gunea	Aurreko urtean egindako lanaren onespina jaso eta proiektu berriak ezagutzea
DBH 2. zikloa	Azaroak 22,23,24	Ikastolan, motibazio saioak	Euskara sendotzeko jarduerak egitea
DBH 3	Abenduak 24	Gurutze auzoa	Ohiturak eta tradizioak bultzatzea
DBH 4	Irailak 20-27	Bidasoa ibaia	Piraguako ikastaroa egitea
DBH 4	Azaroak 8	Biologia-Geologia ikasleak: Zumaiara Teknologiako ikasleak: Niessen Arteko ikasleak: Oartzungo ondare historikoa	Irakasgai hauek sakontzea
DBH 4	Azaroak 24	Filma-Irun	Etika irakasgaiaren lantzea eta hausnarketa egitea
DBH 4	Abenduak 1	Udaletxea	Hitzaldia: Hiesa
DBH 4	Abenduak 24	Ugaldetxo-Ergoien baserriak	Ohiturak eta tradizioak bultzatzea

Eskolako Agenda 21 Iraunkortasunerako heziketa

Abiatu da aurten ere Eskola Agenda 21eko tren, eta egin ditugu honen inguruko lehenengo lanketak. Azaroaren 3an izan genuen udal batzar berezia, guk maiatzean udalari egindako eskaera guztiei erantzuna emateko.

Abiatu gara, urtero bezala. Ikastolan Eskola Agenda 21eko koordinatzaile taldea osatua dugu, ziklo bakoitzeko zein zuzendaritza taldeko ordezkariekin. Oiarzungo eta Oarsoaldeko Eskola Agenda 21eko taldeetan parte hartzen dugu. Aurten lehenengo aldiz eskualdeko eskola guztiek hondakinen gaia, guztiek bera, jorratuko dugu.

Gure kasuan bigarren urtea izango dugu hondakinen lanketa egiten dugula. Ibilbide luzea dugu. Hona hemen landuak ditugun gaiak:

- 2004/2005 Ura
- 2005/2006 Kontsumoa
- 2006/2007 Hondakinak
- 2007/2008 Mugikortasuna
- 2008/2009 Mugikortasuna
- 2009/2010 Hondakinak
- 2010/2011 Hondakinak

Udal batzar berezia egin genuen egun horretan. Azaroak 3 Eskola Agenda 21 EGUNA bihurtu genuen eta ikastola girotzeko aprobetxatu genuen, urtez urteko lorpenak landuz eta udalaren erantzuna aztertuz. Hona hemen udak bidalitako erantzun gutuna:





Eskolako Agenda 21

Oartzunen 2009/10

Hondakinak

ERANTZUN GUTUNA

Ikasle agurgarri hori,

Zer moduz doa hondakinen gaiaren lanketa eskolan? Nire ustez ezin hobeto daramazue. Pasa den urtean egin zenuten lanketak bere fruituak eman ditu jada. Ikusi al dituzue herriko zelai eta landareak? laz baino ederragoak daude!

Eman ditu bai fruituak zuek Haurtzaro ikastolan eta Elizalde Eskolan hazitakoak. Ikusi bestela duela 5 hilabete hasitako atez ateko bilketak Oartzunen eman dituen emaitzak: milioi bat kilo gutxiago bota dugu oartzuarrok zabortegira. Gainera 52.000Kg gehiago bildu da ontzi arinetan birziklatzeko.

Zorionak ikasle, zorionak bai, izan ere zuk ikasturtean zehar egindako lanak eman dituelako fruitu hauek. Egoeraren diagnostikoa eginez, gaia aztertu eta hobetu beharreko ekintzak definituz. Etxera eramandako lanak ezin hobeto bete dituzue, bejondeizuela!

Gaurko egunean udaletxeko pleno aretoan bildu gara zuekin. Bertan egon gara Aitor, Oartzungo alkatea; Igor, Bide Heziketarako teknikaria nahiz udaltzaingoa eta ni neu, Hondakinen Kudeaketarako Oartzungo Udalerako Aholkularia. Arreta handiz jarraitu diozue Aitorrek esandakoei eta Igor eta biok azalduakoei. Batzuk apunteak hartu eta hartu aritu zarete txinto-txinto, etxeko lanak eginez. Gaurko saioan zuek ikasturte amaieran egindako eskaerak erantzuten saiatu gara. Ondorengo lerroetan saiatuko naiz zuek egindako eskaerei erantzuten.

Egin zenituzten eskaerak Atez ateko bilketa ezarri baino lehen eginikoak direla kontuan hartuta hauetako batzuk eguneroko benetako bilketan arituz konturatu zineten beharrezkoak diren edo ez. Herritarrei arauak errespetaraztea udalaren helburuetako bat da eta jarraipenaren bidez arauak betearazteko lanak egiten ari da dagoeneko. Alkateak aipatu moduan orokorrean Oartzuarrak arauak betetzen ari dira.

Kaleko zaborrontzi berriak jartzen hasia zen udala jada, hilerrian bertan beharra ikusi eta kokatu zen berria. Gune bakoitza aztertu da eta berriak jartzen nahi baino beranduago egiten ari den arren, hasiak dira udaleko langileak.

Udalak helduen artean eredugarriak diren jarrerak bultzatzeko eskatu zenuten. Xanistebanetan eredugarria izan zen festa gunetan birziklagarriak diren edalontzien erabilpena. Elizalde eta Haurtzarok jarritako guneetan ere birziklapena eredugarria izan zen. Hala ere, udalak atez atekoaren bidez urtero kontzientzia-zio lanak burutzeko helburua du, jarrera eredugarriak bultzatzeko asmoarekin.

Berrerabiltzeko poltsen erabilpena atez atekoaren bilketarako ez du egokia ikusten udalak. Izan ere bilketan ezinbestekoa da bilketarako beharrezkoa den denbora kontrolatzea eta murriztea. Adibidez papera plastikozko poltsetan ateratzeko aukera eman zen baina denbora luzea ematen du hauek biltzeak. Horretarako udalak bizilagunen artean hitz egin ondoren ontzi komunitarioak erabiltzeko aukera bultzatuko du. Hasiak dira Karrikako kooperatibako etxeetan modu honetara papera ateratzen. Zuek egindako eskaeratako hau aurrera doa bizilagunen laguntzarekin, bejondeizuela!

Aipatu zenuten beste gaia herritarren iritzia berri edukitzea izan zen. Bai bai, arrazoi duzue, herritarren iritzia jakitea ezinbestekoa da atez atekoan ere bai. Horretarako dago atez atekoaren informazio bulegoa. Jende asko pasatzen da egunero bertatik kezkak eta zalantzak argitzera. Kexak ere bai noski, baina hasierako haserreak oraingo galderak bihurtu dira. Hala ere udalak datorren urtearen hasieran herritarren artean galdeketa bat egiteko asmoa dauka, iritzia jakin eta hobekuntzak egiteko asmoarekin.

Elizaldeko konposta makina maitea, martxan jarri genuen baina arazoak eman zizkigun. Haurtzarokoak ongi funtzionatzen duen arren, beste honek ez du nahi izan. Horregatik udalaren kezka da makina hau geldirik ez edukitzea eta horregatik lehenbailehen zer egin erabakitzeko momentua da.

Hondakinak ateratzeko ordutegia moldatzeko eskatu zenuten ordukoan. Ziur nago orain bilketa berriarekin egokitu ondoren moldatuko zaretela dagokion ordutegian bertan ezta? Udalaren aldetik momentuz ez dago



asmoa ordutegi hau zabaltzekoa. Hala ere, herritarren iritzia jakin ondoren beharra izanez gero beti dago aukera bilketaren ordutegiak eta arauak aldatzeko.

Azkenik, larrialdi gune gehiago jartzeko beharra ez da ikusten. Informazio bulegora joandako herritarren aldetik ez da eskaera nabarmenik egon alde honetatik. Garrantzitsua da jakitea larrialdi gune gehiago egiteak bilketa kalitatean eragina edukiko lukeela. Talaia poligonoan dagoen larrialdi gunea txiki geratu denez berau handitzeko lanak hasiak dira jada eta honek ematen duen zerbitzua nahikoa dela deritzogu. Lehenago aipatu moduan, beti dago beharren arabera zerbitzuak egokitzeko aukera.

Bueno gazteak, hauexek izan dira gaurko plenoan komentatu ditugun gaiak. Zuek egindako eskaerei erantzuten saiatu gara. Zerbait erantzun gabe geratu bada badakizue non gauden, ez egin zalantzarik eta galdetu beldurrik gabe, galdetu ezean ez baitira kezak argitzen. Zorionak berriro ere iazko ikasturtean egin zenuten lanarengatik eta animo datorren ikasturte honetan orain arte egindako lana hobetu behar baitugu guztion artean.

Eutsi goiari, ingurumenak eskertuko digu eta!

Oiartzunen, 2010eko azaroaren 3an

Jon Kortajarena Rubio

OIARTZUNGO UDALERAKO HONDAKINEN KUDEAKETARAKO
AHOLKULARI TEKNIKOA



gure amona Maritxu

Ikastolan ez dugu berriro
zure esku zartarik entzungo talo gainean,
baina zure irribarreak argituko du aurten ere
talogileen mahaia San Tomas egunean.

Tak-tak! Tak-tak! Tak-tak!
Zure esku xuriak
arto irin xuritan, xuri.
Eskerrik maitekorrenak zuri.

Zure maitasun errotarriak
beti emango digu behar hainbat arto irin
zurekin hasitakoa
inoiz gelditu ez dadin.

Zure esku xuriak
Tak-tak! Tak-tak! Tak-tak!
Gure bihotz-taupadak.

HAURTZARO IKASTOLA



HAURTZARO DANTZA TALDEA

Cantonigrosen

Ez dira urte gutxi pasa Haurtzaro dantza taldea sortu zenetik. Urte hauetan egindako ibilbideari esker, konturatu gabe Oiartzungo ohiko paisaia bihurtu da edozein egun esanguratsutan. Esate baterako, zaila egiten zaigu Inauteriak, inude eta artzainen desfilea edota San Juan Sua bezalako ospakizunak gure dantzariak bertan egon gabe imajinatzea.

Egia da taldeak herriko txokoak folklozez tindatu dituela lehenengo urteetatik, eta azken aldi honetan baita Euskal Herrikoak ere. Baina taldeak hartu duen dimentsioari eta kalitateari esker, kanpora ateratzeko grina geroz eta handiagoa bihurtzen hasia zen azken denboraldian.

Joandako uztailan estreinakoz, Haurtzaro dantza taldeak Euskal Herriatik haratago bidaiatu zuen, eta Katalunian ospatzen den Cantonigrosen festibal internazionalan parte hartu zuen. Dantzariak bertan pasa zituzten lau egunetan, Vic hirian eta inguruetan zenbait ekitaldi egiteko aukera izan zuten.

Folklore munduan famatua den festibal/txapelketa honetan mundu osoko hogeita hamahiru dantza taldek eta abesbatzek parte hartu zuten. Horien artean Kolombia, Korea, Txina, Filipinak, Errusia, Ukraina, Mexiko, Taiwan eta Venezuelako herrialde desberdinek eman zuten izena. Adin muga gabeko txapelketa izan arren, gure DBHko hogeita bost bat ikasle izan ziren festibaleko talde gazteenetarikoa.

Haurtzaro dantza taldea inaugurazio ekitaldian dantzatzeko aukeratua izan zen, non eragin handia izan zuen epaile eta ikusleen artean, eskainitako maila

altuari esker batez ere. Lehenengo arrakasta ostean, ekitaldi ofizialerako Gipuzkoa eta Bizkaiko dantzetan oinarritutako 10 minutuko programa prestatu zuen taldeak. Taldeak ikuslegoarengan izan zuen arrakasta argia zen arren, azken egunean txapelketaren emaitzak jakindakoan ezusteko bikaina hartu zuten gure dantzariak: bigarren postua eskuratu zuten! Beren poza areagotu egin zen saritutako gainontzeko taldeak helduen konpainiak izan zirela konturatzean. Hori dela eta, epaileek aipamen berezi bat eskaini zioten dantza taldeari sari banaketan. Lehenengo sailkatua Italiako "Canicatti" taldea izan zen, hirugarrena, berriz, Lituaniako "Paynimelis" taldea. Ezin esan gabe utzi dantzari eta irakasleen poza areagotu egin zela.

Emaitza paregabea lortzeaz gain, esperientzia ikargarria eta ahaztezina izan da parte hartzaileentzat zentzu guztietan, errepikatu behar den horietakoa. Egun hau iritsi bitartean, Haurtzaro dantza taldeak eguneroko lanak eginez jarraitzen du. Denboraldi berri honetarako dantza ezberdinak lantzen ari dira, datozen hilabeteetan dituen aktuazioetan hain positiboa izan den Cantonigroseneko espiritua erakusteko asmoz.





HAURTZARO IKASTOLAKO
Mendi Taldea
2010/2011 irteerak

Urriaren 24an

Antigua-Izazpi (973 m)
Kizkitza (683 m)
Mandubia




Azaroaren 14an

Aia-Pagoeta (714 m)
Indamendi (460 m)
Elkano



Abenduaren 12an

Negu Jaia
Igantzi-Unanua (651 m)-Bianditz (840 m)



Urtarrilaren 22an

Iraupen eskiko Ikastaroa
Somport-en




Otsailaren 20an

Zugarramurdi-Atxuria (756 m)
Usotegieta

Martxoaren 13an

Santa Ageda
Murumendi (868 m)
Mandubia



Apirilaren 10ean

Txindoki (1.346 m)
Egun osoko irteera



Maiatzaren 15ean

Maiatzaren 15ean
Leitzatik Lekunberrira txirrinduz



Ekainaren 5ean

Ikastola Eguna: JINKANA



DBH 4. mailako ikasleak kurtso bukaerako ibilaldirako *sosak biltzen*

DBHko 4. mailako ikasleak hainbat lan-taldetan elkartzen gara ikasturtean zehar zenbait ekintza antolatzeko. Ikasturte hasieratik hona egin ditugun eta batik bat Gabonen inguruan egingo ditugun ekintzen berri emango dizue lan-talde bakoitzak. Horrela, lan eta lan ikusten gaituzuenean, badakizue zertarako ari garen.

ESKERRIK ASKO ALDEZ AURRETIK MAILA OSOAREN IZENEAN!



Hamaiketakoak, *Oso goxoak!*

Aurreko urtekoengandik jaso dugun herentzia jarraitu dugu: hamaiketako-en salmenta. Modu arduratsuan, hamaiketakoak saltzen ditugunetik, ostiralero beharrezko janaria erostera joaten gara, ondoren, modu merkean saltzeko gure ikastolan. Bokata eta sandwichak saltzen ditugu hainbat konbinazio eginez, bestak beste, txorizoa, urdaiazpikoa, txokolatea, gazta eta urdaiazpiko geza. Lehen esan bezala, prezioak oso merke daude, euro bat eta euro eta erdi bitartekoak. Beraz, hamaikak aldean gosez bazaude, animatu eta igo zaitez Haurtzaro ikastolako jantoki gaineko aretora, bertan izango gaituzu eta.

Dena den, ez izan mesfidati, eta ez pentsa gure aberastasun pertsonalerako ari garenik, to! Ikasbidaia finantzatzeko iturri bat da!

Besterik gabe, hemen itxarongo zaitugu, zure gosea asetzeko asmotan.

Agur bero batez,

Hamaiketakoaren arduradun taldea

Bonboien salmenta

Kaixo!

Dakizuenez, azaroan bonboiak saltzen ibili gara. Bi motatakoak saldu ditugu: oso goxoak, txokolate txuria eta beltzez beterik, eta oso-oso goxoak, bi pisuko kaxetan txokolatezko bonboiez beterik. Denak 15 eurotan saldu ditugu, bakoitzak sei kaxa, mota bakoitzetik hiru. Erosi duzuenak gustura geratu zaretelakoan, mila esker!

Agur!

Irati, Uxue, Ziortza, Mikel G., Mikel M. eta lan



Atzean, eserita, ezkerretik eskuinera, Uxue, lan, Mikel G., Mikel M. Aurrean, ezkerretik eskuinera, Ziortza eta Irati



Atzean, zutik, ezkerretik eskuinera, Mikel Z eta Jara.
Aurrean, ezkerretik eskuinera, Amaia eta Ane

San Tomas Kilikupen

Urtaro bezala, abenduaren 19an San Tomaseko feria egindo da Oiartzungo plazan. Bertan gure postua jarriko dugu, gure ikasbidaiarako dirua lortzeko. Gu Comarrugara goaz, Tarragonara. Bertara joateko dirua lortzeko jartzen dugu postu hau. Beraz, anima zaitetzte guk Kilikupen dugun postura etortzen, bertan gure produktu ezin hobeak dastatzeko aukera duzue eta.

Besterik gabe, han elkar ikusiko dugulakoan...

Mikel Z, Ane, Jara eta Amaia.

Bigarren eskuko Azoka

Gu bigarren eskuko azokaren antolatzaileak gara: Garazi, Jon, Andoni, Olaia, Jon, Unai, Mikel eta Goiatz. Azoka abenduaren 19an izango da, herriko plazan antolatzen den azokan. Bertan, CD-ak, liburuak, jostailuak, etab. aurkituko dituzue. Bildutako dirua ikasturte bukarran egingo dugun ikasbidaiarako izango da.

Anima zaitetzte, zuen zain izango gara herriko plazan, eta merke-merke salduko dizuegu desio duzuen!

Antolatzaileak



Atzean, ezkerretik eskuinera, Jon eta Unai
Erdian, ezkerretik eskuinera, Mikel, Andoni eta Jon
Aurrean, ezkerretik eskuinera, Garazi, Olaia eta Goiatz

San Tomas eguna ikastolan

Kaixo irakurle!

Jakingo duzuenez, aurtan ikasbidaia Comarrugara (Tarragona) eta Bartzelona aldera egingo dugu eta, beste mailetan ez bezala, guk eginiko ekintzen bidez behar dugun dirua lortzea dugu helburu. Ekintza hauen artean, besteak beste, hilaren hogeita batean, txerri egunean, eta oporrak hartzen ditugun egunean, ikastolan egingo den jaia nabarmendu nahi dugu. Ikastolako frontoain gure postua jarriko dugu eta bertan talo, pintxo, ogitarteko eta edariak egongo dira salgai.

Anima zaitetz, bertan probatuko baitituzu jaki ezin hobeak.

Hogeita batean zure zain egongo gara. Laster arte.

Haizea, Itsaso, Aintzane, Uxue



Ezkerretik eskuinera, Aintzane, Haizea, Uxue eta Itsaso



Ezkerretik eskuinera, Peio, Aia, Izar, Irati, Beñat eta Iker

Gabon goizean Kantu Kantari

"IEPA! Abenduaren 24ko goizean zuen balkoietan ikusi nahi zaituztegu gure abesti politak entzuteko prest: "Hator hator", "Gaueko izar", "Olentzero"... kantuekin zuen etxeak alaitzeko eta, bide batez, ikasbidaiarako xox batzuk lortzeko asmoz! Beraz, Iturriotz, Ugaldetxo eta Ergoien aldeko etxeetakoek prestatu zuen xoxak eta ez kezkatu txanponik ez izanez gero, papera ere onartzen dugu eta!

*Agur eskerrik asko
agur etxeokak...*

Laster arte!!



Ezkerretik eskuinera, Maialen, Lierni, Jaione eta Alaitz

Santa Ageda Bezpera

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperako usadioari eutsiz, ahots goxoek alaituko dituzte Ugaldetxotik Elizalderako etxe eta baserriak. Etxez etxe ibiliko gara giro atseginean, kurtso bukaerako ibilaldirako eskean.

6etatik 8ak bitarte, sosak maindirera botatzeko prest, etxean egotea estimatuko genuke.

Benetan eskertuko dugu zuen laguntza.

Jaione, Alaitz, Lierni eta Maialen

EUSKARAZ BIZI kanpaina

Ikasturte berria bide sendoa hartzen ari da, eta horrekin batera, baita gure bide-lagun den Euskaraz Bizi ere. Lehenengo ebaluazio honetan, besteak beste, 1. kanpaina eta Euskararen Nazioarteko Eguna antolatzea izan dira eginkizun nagusiak eta dagoeneko biak igaro dira.

Lehenengo kanpaina azaroaren 22an hasi zen eta abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunarekin bat eginez, amaitu zen. Hamabostaldi horretan zehar, IDAZKETA (ipuinak, narrazioak, poesiak...) lantzea izan zen helburua.

Euskarazko erabilera traketsak zuzentzeko tarteak ere izan genituen eta kanpainak iraun zuen bitartean landu genuen esaldia hauxe izan zen:

Ahal da etxera joan?
Etxera joan naiteke/ninteke?

Kanpaina girotzeko, Hemendik at taldearen *Jaso dezagun euskara* abestia aukeratu genuen. Izan ere, abestiak dioen bezala, euskara euskaldunon egunerokoa da, baina jaso eta indartu egin behar dugu, etorkizunean euskaldun izango bagara.

Jaso dezagun euskara.
Euskara eguneroko
zapi gorria da.
Jaso dezagun euskara.
Orain izan behar da,
izanen bagara.



Euskararen eguna ospatzeko, berriz, karaokea antolatu genuen. Ikasle nahiz irakasleak gogotsu aritu ziren abestiak prestatzen eta oso arrakastatsua izan zen.

Hemendik aurrera ere buru-belarri lanean jarraituko dugu kanpainak eta beste-lako ekimenak prestatzen. Izango duzue gure berri!

EUZKARAZ BIZI TALDEA





EUSKARAZ BIZI: euskararen eguna

ADARROTEKIN "EUSKARAREN EGUNA"

PREGOIA

Jakinek denez, hainbat eta hainbat ekitaldi eta jardun egiten dira euskararen omenetan. Horietako bat, guztietatik nabarmenena, Euskararen Nazioarteko Eguna da, urtero-urtero, abenduaren 3an, Xabierko Frantzisko deunaren egunez ospatzen dena. 1949. urtean sortu zen egun hau Eusko Ikaskuntzaren ekimenez eta euskararen balio unibertsala aldarrikatzea du xede.

Aipatutako ospakizuna ez da hutsetik abiatutakoa. Badu aurrekaririk. Ezagunak dira, besteak beste, Errepublika garaian Eusko Ikaskuntzak, Euskaltzaleak Bazkunak bitarte, antolatutako antzerki eta olerki egunak, bertsolari egunak eta antzekoak...

Haurtzaro ikastolan ere Euskararen Eguna ospakizun eguna izaki, EUSKAL KARAOKEA prestatu zen. Hau guztia antolatzen Euskaraz Bizi taldea eta Eskuttun ikasleen euskara elkarteak aritu ziren, eta aurrera eramateko ikasle eta irakasleen gogoak eta laguntza jaso zuten.

Goizean



PREGOIA





Arratsaldean Argitxoren urtebetetzea

Euskararen TXOKOA



Ekitaldi nagusia EUSKAL KARAOKEA



Haurtzararen 2010eko abenduaren 3a



ESKUTTUN ELKARTEA Martxan da!

Kaixo!

Ikasturte berriarekin batera, gu ere hemen gara zuei Haurtzaro ikastolako Eskuttun euskara elkartearen berri emateko.

Jakingo duzueenez, Eskuttuneko taldekideok ostiral arratsaldeetan elkartzen gara, ikastorduz kanpo. Lehenengo saioan, ohitura dugun eran, merienda goxo baten inguruan elkartzen gara, tripa bapo bete eta kide berriak ezagutzeko. Aurten 32 ikasle arituko gara lanean elkarte honetan: Uxue Flamarique, Haizea Urkia, Jon Otegi, Aitzol Salaberria, Beñat Oiarbide, Aitor Ibargüen, Mikel Urdanpileta, Jon García, Aritz Olarte, Gorka Aduriz, Josu Jimeno, Aitor Torres, Julen Alkain, Gotzon Retegi, Julen Echebeste, Maialen Sthephens, Ane Ibarguren, Iraitz Mateo, Aroia Altuna, Haizea Saez de Eguilaz, Uxue Agirre, Izar Aizpuru, Goiatz Aramendi, Uxue Barrenetxea, Jara Garzia, Aintzane Toledo, Mikel Aranburu, Itsaso Mendiburu, Amaia Ostolaiz, Ziortza Salaberria, Olaia Sanchez eta Ander Aranburu.

Urteroko programari jarraituz, gure egiteko nagusia Euskaraz Bizi egitasmoan parte hartzea izango da: HHko geletan Argitxori lagunduko diogu, hiru hilabete bakoitzean antolatzen diren kanpainak aurkeztuko ditugu, euskarazko egitura traketsak zuzentzeko Euskaraz hobean hobek proposatutako esaldiak zintzilikatuko ditugu...

Baina ikastolak antolatzen dituen gainerako ekitaldi eta ospakizunetan: San Tomas, Olentzero, Inauteriak, Santa Ageda, San Nikolas, Korrika... laguntzen ere arituko gara, euskararen presentzia ziurtatzeko.

Horiekin batera, ikasleen arteko kidetze saioak prestatuko ditugu: jolasak, kirol lehiaketak, ipuin kontaketak, antzerki emanaldiak...

Lanari gogor eta gogoz helduko diogu hemendik aurrera ere, eta euskararen alde lan egin nahi duen edonork ateak zabalik izango dituela jakinarazi nahi dizuegu.

Anima zaitetzte!





gazte forua

Euskararen TXOKOA



Beste urte bat geyo gazte forukuk lanin, gozatzen, disfrutatzen, erki pasten, lagun artin eoten, lagun berriak itten, ekintzak antolatzen, gauza berriak ikasten... Astezkenero elkartzen ga 15:00 tan ikastolako sarreran ta egiya san talde majua gaude. Hombre, jende geyo torko balitza primeran, ordun ta jende geyo ordun ta idea geyo, far, geyo, gozamen geyo, lagun geyo, gauza berri geyo, ...

Igual gauza bat argittu berko genuke, GAZTE FORUA, DBH1 ETIK DBH4 arteko ikaslintzat da. Gu asteazkenero elkartzen ga ta hillabetin behin ekintza bat antolatzen dugu herriko 12-17 urte arteko gaztiantzat. Aurten bi ekintza in ttugu ya, urrian Larraitzeko zelayin ibilli giñan zuhaitzetan, krixton parrak in genittun. Ta geo eguna Abaltzisketan pasa genun frontoyin jolasten, mendiz paseo bat ematen... ERKI. Ta beste ekintza azarun sukaldaritza tallerra, bua!!!! A ze postre goxuak: nozilla helatua, txokolatezko odolkiya, ta palmerak ta karakolak. Etzutela beñez jan txokolatezko odolkiya? bakizu hurrengun torri gukin... egiya san mundialak zozten.

Bakizute ba, lenengo hiruhillabete hau, astezkenetan 15:00 tan haurtzaron elkartzen ga, ta gabonak ta geo elizalde herri eskolan. Ta hillabetin behin atento eon, zuen gelako jendiri galdetu guk ekintzak antolatzen jarraituko dugu ta.



Kuadrillategiko Konfuak

Apa!

Kuadrillategiko gaztiak ga, ta hau idatzi dugu Kuadrillategi zer den ta bertan zer itten dugun jakittek. Zer da Kuadrillategi? Hizkuntza propiyua duen kuadrilla da. Bertako helburua lagunekin euskaraz hitzeittea da. Baitere kuadrillak zabaltzia, biño beti re euskeraz. Pertsona berriak ezagutu ta ongi pastia re bada helburutako bat. Bertan jolastu, kanpoko zein ostiraleroko ekintzak antolatu... Hauek, guk aukeratzen ttugu. Oaingoz kanpoko ekintzak ettugu in, biño esate bateko lengun masaje tallerra in genun, pelikula re kusi genun... Ta aste hontan pizza lehiaketa ingo dugu. Gabonetan, afari bat ingo dugu, elegantez jantzita noski! Normalin ekintza bat eoten da ostiraleroko bi ordu terdiz disfrutatzeko ta Iturriotzeko Dorretxin elkartzen ga.

Ba animatu, oso ongi pasako zute ta!

Kuadrillategiko gaztiak.

HAUR HEZKUNTZA 1

3 URTEKOAK GAZTAINAK BILTZERA

HIRU URTEKO NESKA MUTIL
ZINTZOAK GURUTZERA JOAN
GINEN GAZTAINAK BILTZERA.
MORKOTS ASKO ZAPALDU ETA
GAZTAINA BATZUK AURKITU
ONDOREN, BERTAN LASAI
JOLASTEKO AUKERA IZAN GENUEN.



HAUR HEZKUNTZA 2

MUNDUKO ETXEAK

HH2KO IKASLEAK MUNDUKO ETXEAK EZAGUTZEN ARITU GARA, ETA ONDOREN LANARI EGIN DIOGU. BEGIRA ZEIN DOTORE GERATU DEN PASILOA IGLU, BASERRI, HAIMA, TXABOLA, ETXE ORRATZ ETA TIPIEKKIN APAINDUTA.

HH 2KO IKASLEAK



hatzak BETE LAN



HAUR HEZKUNTZA 3

ARTZAINEKIN BERRIKETAN

AZAROAREN 12AN LEKUNGARAI BASERRIRA JOAN GINEN ARTZAINAREKIN HITZ EGITERA. NIKOLASEK ESAN ZIGUN BI ARKUME JAIOTZEAR ZEUELA ETA SEGITUAN JOAN GINEN IKUSTERA. ARDIA INDARKA HASI ZEN ETA BIXKIAK BANAN-BANAN ATERA ZIREN NIKOLASEN LAGUNTZARI ESKER. GEROAGO ARDIAK ARKUMETXOAK TXUPATUZ GARBITU ZITUEN. SEGIDAN NIKOLASEK TITITIK ESNEA EDATEN ERAKUTSI ZIEN.

AMAIK, BERRIZ, GAZTA NOLA EGITEN ZEN KONTATU ZIGUN ETA FRIGORIFIKOAN GORDETA ZITUEN GAZTETATIK PUSKA BANA EMAN ZIGUN DASTATZEKO.

AZKENIK, AUTOBUSA HARTU ETA IKASTOLARA ITZULI GINEN.

MILA ESKER AMAIA ETA NIKOLAS. ZUEN GAZTA ETA HAMAIKETAKOA OSO GOXOAK ZEUDEN!!!

HH3 KO IKASLEAK



LH1

LH 1. MAILAKO ERAKUSKETA

JOAN DEN AZAROAREN 12AN, LH1 MAILAKOEK ERAKUSKETA BAT ANTOLATU GENUEN.

DENBORAREN MAKINAN BOTOIA SAKATU, OINATZA ZAPALDU ETA... "DINOSAURIEN GARAIRA" JOAN GINEN. GELAN MAKETAK, LIBURUAK, FOSILAK ETA DINOSAURIUAK TOPATZEKO AUKERA IZAN ZUTEN BERTARA GERTURATU ZIREN GUZTIEK. ESKERRIK ASKO.



MAINA BAIKATU ZE LANTZAKO BAKETU
LH1. A. HAZI KOLA!
DINOSAURIUAK GELAN DUTEN INTERESOK
BAGITU ZATE.
NOLA BAKETUO?
HARRI BAT!
Gloria NABOÑO

Ni eta jabea zait eta bilerak
egiten ari gara.
OSO PAKTA. HAZI KOLA!

BUPA GATHAK!!!
LAN HAZI KOLA! PAKTA ETA
HAKITA. ASKO IZAN DUT
ZURE GATHAKETARI ESKER.
NIA ESKER ETA LORANTZ
LAN HAZI HAZI KOLA! ETA
HAKITA HAZI KOLA! ETA
HAKITA HAZI KOLA!

GUSTATU AL ZAIZU GURE GATHAKETARI
IDATZE EZAZU ZURE IRETZA.
ESKERRIK ASKO!
JOSU GUSTATU ZAIZU
Maketa eta lane gathak
maketa-maketa
E. HAZI KOLA! HAZI KOLA! HAZI KOLA!
E. HAZI KOLA! HAZI KOLA! HAZI KOLA!
UTXO DUTU. NABOÑO
ASKO GUSTATU ZAIZU, BAKETU EDE, SAKETA, GATHAK
HARRI BAT. ESKERIK ASKO BAKETU BAT
HARRI BAT. NABOÑO
DUTU HAZI KOLA. LAN HAZI KOLA HAZI KOLA.
HARRI BAT. NABOÑO



LH2

LH 2. MAILAKOAK ERDI AROAN

Maddalenek eta Ferminen proposatuta Erdi Arora "bueltatxo" bat egin dugu, eta bertan ikasi ditugu gauza pila bat. Gozagarriena dantza eta bidrierak egitea izan zen.

Dantza LH 1. mailakoei eskaini genien. ASKO GUSTATU ZITZAIEN!!!



LH3

KAIXO: Haurtzaroko hirugarren mailakoak gara. Egiptoko gaia landu dugu eta, beste gauza batzuen artean, obeliskoak, piramideak, baratzak, xadufak... eraiki ditugu gure maketan jartzeko.

Egiptoko hieroglifikoak deszifratzen ere aritu gara.

Eta nahi duenarentzat hieroglifikoak asmatu ditugu. TIATINITIMATITU, ia zenbat asmatzeko gai zaren:

hieroglifikoak



LH4

Ameriketara joan nintzen xentimorik gabe handik etorri nintzen, maitea, bost milioiren jabe!

LH 4. mailakoak Ameriketara hainbat eta hainbat euskaldun joan zirela ikusi dugu. Abestiak dioen bezala, asko aberasturik bueltatu ziren, baina beste asko betiko bertan gera- tu ziren.

Euskaldunak kanpora ez ezik, kan- potik Euskal Herrira pertsona mordoa etorri dela ere konturatu gara. Hau dela eta, gure inguruan ditugun hiru atzeritar gonbidatu genituen ikasto- lara Euskal Herrira etortzeko izan zituzten arazoak ezagutzeko:

Neil australiarra. Txirrindularitzak ekarri zuen honantz. Bertan familia sortu eta, australiar sena galdu ez duen arren, oiartzuar peto petoa dugu dagoeneko. Australiarako bidea ez du ahaztua, lana eta familia dela eta, urtean behin baino gehiagotan itzultzen da etxera.



Leo argentinarra: Abentura senak eta mundua ezagutu nahiak lehenengo Bartzelonara eta gero Euskal Herrira ekarri zuen. Bi urte egin ditu gure artean, baina orain herri minak etxe- rako bidea erakutsi dio.

Montse mexikarra: Hamaika urte zituela ama eta anaia txikiarekin Oiartzuna etorri zen, anai-arreba zaharragoak eta aitona-amonak Mexi- kon utzita. Mexikon adina urte dara- matza Euskal Herrian, beraz, erdi mexikar erdi euskalduna dugu. Hala ere, Mexiko begira egoten da eta hurrengo bisitan oraindik ezagutzen ez duen bi urteko iloba ikusteko irri- kan dago.



LH5

IZARREN HAUTSA

“Egun batean
izarren hautsa bilakatu zen bizigai...”

Hau izan da LH 5. mailan Txanelan landu dugun ikasturte honetako lehenengo gaiaren izenburua.


Izen bereko Mikel Laboaren kanta ikasi dugu eta unibertso-ari buruz gauza asko landu dugu: unibertsoaren sorrera, galaxiak, izarrak, eguzki sistema etab.

Plastika saioetan zerua margotu eta unibertsoa irudikatu dugu.

Zerua ez dago beti berdina. Alai edo triste egon daiteke, pozik edo haserre, ilun edo argitsu, gris edo koloretsu...

Eta unibertsoa, non hasi eta non bukatzen da? Zein forma du? Unibertso bakarra al dago? Bakoitzak bere erantzuna eman die galdera hauetara eta norberak bere unibertsoa irudikatu du.

Artelan guztiekin oso erakusketak egin ditugu. Hemen duzue batzuk. Ea gustatzen zaiuzuen!



LH6

6. maila BERTSOTAN

Errima familiak, puntuak, bertso saioak, bertsolaria, bertso zaharrak kantatu, doinuak... Gauza pila lantzen ari gara aurten Bertsolaritzako saioetan. Ander Lizarralde bertsolari gaztearen gidaritzapean ari gara asteroko ordubeteko saioetan eta, azkenekoan, zenbait bertso zahar birmoldatu ditugu. Hemen ditzue hiru geletan sortu genituenetako batzuk. Disfruta itzazue!

Astoa ikusi nuen
kaletik korrika
polizia guztiak
berari segika.
Poliziek ikusi
zuten han Txirrita.
Bota zuen bertso bat
begiak itxita.

Doinua: "Astoa ikusi nuen"

Maritxu nora zoaz
pertsone horrekin?
eskutik helduta eta
makillajearekin.
Bartolo nora zoaz
arropa zaharrekin?
Afaltzeko lekua
daukagu Burger King

Doinua: "Maritxu nora zoaz"


Nire sentimendua
nahi det erakutsi:
Neska batek "in" zidan
bihotz dena hautsi.
Ipurdian "in" nion
xuabe kutxi-kutxi,
gogor eginda ere
ez, ez zuen etsi.

Doinua: "Nire sentimendua"



bigarren Hezkuntza

DBH1



Mikel Ekabearte
DBH 1

Unibertsoa ezagutzeko

teknologia

Hasieran astronomoek begi hutsez ikusten zituzten astroak. Gero izarrak bereizteko konstelazioak asmatu zituzten eta ondoren konstelazio eta izarrak agertzen ziren mapa bat egin zuten, mapa horrek Planisferio izena du.

Gero zerua hobeto behatzeko astronomoek tresna batzuk sortu zituzten, esaterako teleskopioa.

Tresna optiko horiek lenteak eta ispiluak zituzten eta horiek konbinatuz lortzen zuten urruneko irudia hurbil egongo balitz bezala ikusi ahal izatea.

Lehenengoa Galileok egin zuen 1600. urtean, horri errefrakzio-teleskopioa deitzen zaio. Teleskopio mota horretan argi izpiek objektibo deituriko lente bat zeharkatzen dute eta okular deituriko bigarren batek jaso eta begira zuzentzen ditu. Teleskopiorik sinpleena da, eta ez ditu oso irudi onak ematen.



Ondoren, islapen-teleskopioa egin zen. Aurreko teleskopioaren aldean, aurrerapen handia izan zen. Argi izpiak ispilu ahur baten bidez (objektiboa) biltzen dira eta ondoren albotik islatzen dira bigarren ispilu lau bati esker. Objektua okularretik behatzen da. Errefrakzio-teleskopioek baino irudi hobeak ematen ditu honek. Newtonek egin zuen lehen teleskopio islatzailea.



Ondoren astronomoek behatoki astronomikoak eraiki zituzten. Behatoki astronomikoak behaketa astronomikoak egiteko lekuak dira, bertan hainbat tresna berri eta teleskopio erabiltzen dira. Behatoki astronomiko bat ezin da edozein tokitan kokatu. Leku horretan ez du argi artifizialik egon behar (herrietako argia), leku garaia izan behar du, ez du leku lainotsua izan behar eta bertara joateko bide egokia behar du.

Orain arte egin den teleskopiorik aurreratuena Hubble da, espazioan dago Lurraren orbitan. Hubblek irudiak irradi-teleskopiora bidaltzen ditu eta gero irudiak behatoki astronomikoetan ikusten dira.



Hubble teleskopioa



Arreciboko irrati-teleskopioa



Jon Olegi
DBH 2



Martxa atletikoa

Martxa atletikoa atletismoko modalitate bat da. Bere ezaugarri nagusia da hanka bat beti lurrean edukiz ahalik eta azkarren ibiltzea.

Martxa Ingalaterran sortu zen XVIII. mendean, eta XIX. mendean bere ospea asko zabaldu zen Europa osoan zehar, Italia, Frantzia, Alemania eta Suedian eta herri-ibilaldi asko antolatu ziren. Ondoren ozeanoa zeharkatu eta Estatu Batuetan ere ezagutzera eman zen, batez ere Mexikon.

Joko Olinpikoetan, berriz, IV. Olinpiadetan agertu zen lehen aldiz, zehazki Londresen 1908an, gizonezkoen kategorian soilik. Emakumeen mailak, berriz, denbora luzez itxaron behar izan zuen, zehazki 1992ko Bartzelonako Joko Olinpikoak jokatu ziren arte.

Kirol honetan, beste hainbatetan bezala, distantzia desberdinetan leihatzen da: 50 km eta 20 km gizonezkoen modalitatean eta emakumezkoenean, berriz, 20 km.

Lasterketak egun argiz hasi eta bukatzeko antolatzen dira. Irteera eta amaiera eremuetan beti ura eta freskagarriak eskaintzen zaizkie kirolariei. Probaren hainbat tartetan urez bustitako esponjak egoten dira atleten zain eta distantzia luzeko lasterketetan antolatzaileek hornidura guneak ezartzen dituzte. Hala ere, kirolari bakoitzak bere hornidurak eraman ditzake.

Martxa, nahiz eta atletismoko esparruan kirol modalitatearik zaharrenetako bat izan, ezezagunenetako bat

dela ere esan dezakegu. Hala ere, ospe eta tradizio handia du hainbat lekutan, batez ere: España, Mexiko, Italia, Errusia, Japon, Txina eta Sobietar Batasun zaharreko hainbat herrialdetan.

Gaur egungo izen eta marka ezagun batzuen agerpenak ezagutzera eman du kirol hau beste lurralde batzuetan: Polonia, Ekuador, Tunez...


Proba honen marka nagusi batzuk aipatzekotan adibide gisa, hauek aipa ditzakegu:

- Gizonezkoen 20 km-koan: Sergei Morozovet du errekorra 1h 16 min 43 segundotan
- 50 km-koan, berriz, Denis Nizhegorodovet 3h 34 min 14 segundotan
- Emakumezkoen atalean 20km-ko lasterketan Olimpiada Ivanovak 1h 25 min 41 segundotan.

Ondoren aipatzen diren izenak munduko atleta ezagun batzuenak dira:

- 20km-ko gizonezkoak: Jefferson Perez, Paquillo Fernandez...
- 50km-koan berriz: Denis Nizhegorodov, Nathan Deakes...
- Emakumezkoen kategorian, 20km-koan: Olimpiada Ivanova, Tatyana Gudkova...

Euskal atleten artean Mikel Odriozola aipa dezakegu. Hau 1973ko maiatzaren 25ean jaio zen Erreterian, Gipuzkoan. Hainbat garaipen lortu ditu, horien artean aipagarriena 5 aldiz Espainiako txapeldun izan dela (2001, 2002, 2003, 2005 eta 2006. urteetan).





Ekhi Mitzelena
DBH 3

Uste gabekoa

Abuztuak 1

Eguneroko maitea zuri dizut kontatu gaur gertatu zaidana.

Azkenaldian bezala, ez da gauza berezirik pasa. Lagunekin gelditu naiz piszinan.

Han geundela izugarrizko neska puska igaro da nire ondotik, txundituta aho zabalik berari begira geratu naiz. Non sartu ote da? bera ikusteko irrikitan nago. Ile luze marroixka hur kolorekoa, begiak urdinak, aho txikia, masailak marrubi kolorekoak. Bikini laranja bat darama soinean, eta pausoa ematen duenean dantzari dabilela dirudi. Neska hau bihotzean gelditu zait. Noiz topatuko ote gara berri?

Ahaztu gabe bihar nire herriko jaiak hasiko dira, izugarrizko gogoia dut eguneroko errutina hau apurtzeko. Eta, baliteke piszinako neska topatzea , hala balitz...

Abuztuak 2

Txupinazoak emango die hasiera festei. Festa usaina dario herriari. Txistulariek eta musika bandak alaitu dituzte herriko kaleak. Udaletxeko balkoian jendea, plaza lepo... zazpiak. Divina ahizpek esker hitzak esan ondoren lehen suziria ZZZZZZZZZZZZZZPUM! , jarraian hamaika suziri, hamaika algar, buila eta zalaparta. Txanpaina barra-barra, blai eginda, festak hasi dira. Gora Xanixtebanak!!

Txupinazoa ondoren “Soka dantza”... Alpargata zortzikoaren hainbat bertsio ikusteko proposa, hanka luze gora, hanka oker behera, kabriolak eta lau ari-nak... barreak eta txaloak. Txaloak eta algarak.

Erraldoiak eta buruhandiak, eta guretzat “autotxoak”.

Gaur lagunekin bokata afalduko dut, gurasoek afaria baitute, egun handia oiartzuarrontzat, kuadrilak afari baten inguruan topo egiteko eguna.

Goizeko ordubiak, txikituta nago. Zzzzzzzzzzzzzzzzzzzzz

Piszinako neskaren arrastorik ez!

Abuztuak 3

Goizeko zazpiak. Korrika eta presaka noa sokamuturra ikustera, ea Olantxeneko Jesulin, Pauko Pakirrin eta Garmendiko Currón “faena” nolakoa den.

Abuztuak 4

Gaur ere ez da sekulako gaua izango ez baitago ezer.
Gauza on bakarra Harrika taldearen kontzertua.

Beste egunen antzera, gaur ere lagunekin geldituko naiz bokadiloa afaltzen. Ondoren autotxoketan izango dugu zita.

Gauean Harrika taldearen kontzertuan nintzela, piszi-
nan ikusitako neskarekin topatu naiz, baina lotsatu
eta ez naiz hurbiltzera ausartu. Bihotza kolpeka eta
burua erabat txoratuta, ahoa lehor... Uf ! Gehiegia!

Abuztuak 5

Oiartzungo jaietako azken aurreko gaua. Gaurko gaua ere ez da sekulako gaua izango, hala uste dut, baina giro ona egongo da karaokea baitago gaztetxean. Ea lagunekin ateratzen naizen kantatzera.

Gaueko hirurak. Begietara begiratzuz kantatu diot pisinako neskeri Laurobaren "Nun zaude" kanta, gaua argitzeko moduko momentua izan zen... mundiala, ahaztezina. Nire buruan zaude, nire amets guztietan... nire begietan.

Abuztuak 6

Jaietako azken gaua, penaz, baina Xanistebanak bukatzeaz daude. Ihesbide taldeak jotzen du Landetxeko goiko karpan. Gaurko gaua mundiala izango da, denak emanda ibiltzeko asmoa dut.

Suak eta zezen suzkoa ikusi ondoren Ihesbideren kontzertua hasi baino ordu erdi bat lehenago, lehenengo filan nintzen prest. Gaueko ordu bata zen hasi zirenerako lehen akordeak jotzen. Eztarria urratu beharrean kantuan hasi nintzen, ondoan beste pertsonak nire antzera, baina bat bereziki, piszinako neska ! Bera ere zale sutua nire antzera! Eskuak elkarri lotuta egon ginen kontzertu osoan. Azkenean emanaldia bukatzeaz zela, Ihesbidekoen kuadrilako batek abeslariari pua eskatzeko esan zidan, ni han, lotsa-lotsa eginda, baina azkenean oholtzara igo eta pua eskatu nion abeslariari, eta honek eman. Gau mundiala: Esku batean pua eta bestean, bestean Ainhoaren eskua.

Gau hartan gertatutakoak puak, Ainhoak eta nik baka-
rrik dakigu.

Irailak 8

Ikastolako lehen eguna. Hau pereza! Gaur aurkezpena dugu. Berririo martxan hasi behar, nahiz eta goizez bakarrik izan klaseak.

Irailak 13

Euskarako irakasleak ipuin bat idazteko lana jarri digu, hiru asteko epea entregatzeko. Zertaz egin dezaket? . Zer idatziko dut?, nola hasi, nondik...

“EZ ETSI, EZ ETSI, DUINTASUNEZ JARRAI...” dio Ihesbide taldeak eta hortan nabil, ea zerbait egitea lortzen dudana.

Ihesbidekoak “krak” batzuk dira, kamiseta bidali didate. Kamiseta soilik ez, beren bi CD, harrituta nago, nonbait kontzertuan horretan geratu ziren, ez nuen uste gogoratuko zirenik, egia esan, ni ere ez nintzen gogoratzen. Egun hartan emozio asko bizitu nituen eta.

Jende eta neska gehiago ezagutu ditut, festak jarraitu baitute. Hurrengo hitzordua 2010 kilometrotan dugu, Lezon. Gu ere bostekoa emateko prest!

Hiruko bikotea

Klin
Klin
Klin
ZU
Klin
Klin
Klin
NI
Klin
Klin
Klin


BIOK

Gauaren ilunean,
kale estu eta bakartian
beso artean hartuko zaitut
eta nire eskuekin, goxoki igurtzi.
Orduan, bion hotsak elkartzean,
maite dudala esango diot:
lehen, orain eta betiko, maite.
Zure soinu goxoaz, ene gitarra,
haren bihotza neure egiten saiatuko naiz,
munduko harribitxi politena bailitzan.
Begi urdin horiek...ezpain gorri eta ile horia...
horien beharrean aingeru liluragarria dakusat:
nire gorputz osoa dardarazten didan aingerua.
Hark lortzen du nire bihotzak taupaka jarraitzea.
Amasestuka, burua jira-biran daukat.
Darion edertasunak itsutu nau,
gau-tximeleta argiak bezala.

Gau a**Maigabe** honetan,
esango balu baietz,
bihotzez,
ene Lili**A**
betirako nuke zainduko,
blzia hargatik emango.
Onar**Tzen** banau,
zoriontsu dut egingo,
arraina uretan bezala.
Rom**Eoren** pare,
maitale onena izango ninduke.

Nire bihot**Za**
harena da.
Ez dut n**Ahi** besterenik izatea.
Gitarra maite:
askatu barnean duzun melod**la**,
eta elkarrekin bizi**Tza** berria hasiko dugu
haren ondoan betirako.
Eta hirurok garenaren sinfonia osat**Uz**,
nor izatera iritsiko gara,
zorion**Tsu** izatera...
klin, klin, klin... harekin.

DBH 4Ako Uxue Agirre



hatzak **BETE LAN**

DBH4



Iritsi da

Ordu bata bost gutxi da
eta oraindik hemen nago,
hemen,
zure zain.
Leihotik begiratu dut,
udazkena da,
hostoak firin-faran dabilta
haizearekin dantzan.
Baina ni,
oraindik hemen nago,
hemen,
zure zain.
Ikuskizun harrigarria da,
harrigarria da nolako askatasuna duten ikustea,
haize pixka bat altxatzen den aldiro
hasten da vals-a.
Eta ni,
oraindik hemen nago,
hemen,
zure zain.

Bat-batean,
nire albokoari liburua erortzean,
nire ametsak alde batera uztean,
nire ordularia begiratzean,
denborak berdin jarraitzen duela konturatu naiz.
Bost minutu hauek
amaigabeak dira,
ni hemen nago,
leku berdinean,
postura berdinean,
momentu berdinean,
sentsazio berdina sentitzen.
Orain zukan pentsatzen ari naiz,
nire bihotz taupaden abiadura
azkartu egin da,
denbora aurrera doa
bularreko kolpeekin batera.
Azkenean txirrinak jo du,
azkenean iritsi da,
iritsi da biziki espero nuen momentua,
momentu hau,
ahaztezina izanen da niretzat,
zurekin elkartzeko eguna iritsi da.

DBH 4Bko Alaitz Aguilar





DBH 4. MAILAKOEN IRTEERAK

DBH 4. mailako ikasleek, hautazko irakasgaiarekin lotuta, irteera bana egin dute: Biologia-Geologiakoak Zumaiara joan dira, Teknologiakoak Niessen lantegira eta Artekoak, berriz, Oiartzungo ondare historikoa ezagutzera. Hona hemen bakoitzak bizitutakoa.

Zumaira txangoa

Ondo pasatzeaz gain asko ikasi genuen!



Azaroaren 8an, astelehenean, Zumaiara hurbildu ginen. Ederki pasatu genuen; interpretazio zentroa bisitatu, itsas laborretara jaitsi, flisch-ak ikusi eta hamaiketako goxoa egin genuen epel-epelean. Hona hemen egun hark eman zituen ekarpenak.

MAREARTEKO EKOSISTEMA AZTERTZEN

Oso interesgarria iruditu zitzaigun itsas mareen joan-etorriak arroka artean sortzen duen ekosistema berezia. Ekosistema honi itsasertzeko marearteko ekosistema deitzen zaio. Eta zer da hau?

Itsas goran itsas ertzeko arroketan higadura eragiten du, hau da, poliki-poliki kostaldea gastatuz doa eta kosta lerroa geroz eta atzerago doa.

Itsas goran olatuek itsasoko bizidunak ekartzen ditu arroka hauetara. Bizidun horiek bertako baldintzetara egokitzen dira, hots, itsas mareek ezarritako baldintza aldakorretara egokitzen dira eta ekosistema bereziak sortu. Ekosistema berezi horiek marearteko ekosistemak dira.

Zergatik dira ekosistema bereziak? Itsas gora izan edo itsas beheira izan, bizidun horien bizi baldintzak erabat aldatzen direlako. Horiei aurre egin ahal izateko eboluzioan zehar moldaera bereziak garatu dituzte, eta ondorioz ekosistema horien balio ekologikoa oso garrantzitsua da.

DINOSAUROEN DESAGERPENA NOLA SORTU OTE ZEN? Hona hemen zientzialariek proposatzen diguten teoria bat, eta Euskal Herrian frogatzen diren lekukoak baditugu Zumaian, eta guk ikusi genuen.

Zumaiako K-T (Kretaziko-Tertziario) muga, iridio geruzaren existentzia, meteoritoetan topa dezakegun materiala: geologian Kretazeotik Tertziariora igarotzen denean dagoen geruza fina da. Orain dela 65.5 milioi urte sortu zen.

Mundu osoan barreiatuta dago muga hau eta Euskal Herrian oso adibide onak daude, Zumaian adibidez. Meteorito erraldoi baten erorketak sortua. Bertan egoteko aukera izan genuen Haurtzaro Ikastolako DBH 4.mailako Biologia-Geologiako ikasleek.

Muga honek hipotesi bat sortu zuen:

Orain dela 65 milioi urte, meteorito izugarri bat erori zen gure planetara. Ondorioz, hautsez bete zuen Lurra eta honek animalia zein landare espezie gehien desagerpena ekarri zuen, dinosauroak barne. Lurrazalean, iridio kantitate oso handia aurkitu zuten. Ezinezkoa da bertan horrenbesteko kantitatea aurkitzea, meteoritoetan bakarrik aurki daiteke kantitate hori, beraz, hona hemen hipotesi hau baieztatzen duen frogak.



DBH4



MOTXO ITSASONTZI ARRANTZALEA IKUSTEKO AUKERA IZAN GENUEN, URRUTITIK BADA ERE!

Hau dena ikusteaz gain, Debako itsasertzean iraulita dagoen Motxo itsasontzi beltz ikusgarria ere ikusi genuen urrutian, hain zuzen arrantza egitea debekatua dagoen itsas tartean. Guztiok hura gertutik ikusi nahi izan genuen, gu geunden lekutik ez baitzen ezer asko ikusten. Baina eguraldiaren ondorioz, ezin izan genuen bertara hurbildu eta urrunetik ikustearekin konformatu behar izan genuen.

ALGORRIKO INTERPRETAZIO ZENTROA

Zumaian Algorriko interpretazio zentroa bisitatu genuen, asko ikasteko gogoarekin. Laienek bikain esplikatu zizkigun bertan ikus genitzakeen instalakuntzak. Itsasbeheraren zabalguenea; Flyscha; Europako fosil aztarnategi garrantzitsuenak; padura eta... zentro honen bitartez hobeto ezagutu genituen, oso interesgarria iruditu zitzaigun benetan.

Zentru honek bi solairu ditu. Erakusketa esparru zabalaz gain, auditorio bat ere badago. Bertan ikus-entzunezko proiektzio batez gozatzeko aukera izan genuen. Hauez gain, artxibo eta dokumentazio gelak eta tailerretarako gelak ere badaude. Guztia oso erakargarri eta txukun dago.

OLAGARROAREKIN BORROKAN

Flysch-era jaistean putzuetan sartu ginen, marearteko plataforman animaliatxoak aurkituko genituelakoan. Anemonekin ibili ginen jolasean beraien garroak ukituaz, izan ere, gure eskuetan itsasten ziren eta oso testura arraroak ziren. Ondoren eskuak itsasoko ur gazietan garbitu behar izan genituen, bestela, azalean hazkura sortuko baitziguten. Anemonez gain, karrazmarroak, ermitariak, lapak, karrakelak... ere aurkitu genituen.

Bat-batean, gure gelakideen deiadarrak entzun genituen: "Torri! Torri! Hemen izuarritzko piztiya harrapatu gu ta!". Korrika joan ginen eta hantxe topatu genuen

olagarro ikaragarria!! Zoritxarrez, gu ikusi bezain pronto arroka handi baten azpian sartu zen. Zulo horretatik ateratzeko ahalegin handia egin genuen; lapa bat bere muturraren aurrean jarri genion, baina berak indar handiz eskutik kendu zigun eta orduan bere burua babesteko harriak jarri zituen horma moduko bat eraikiz.

Azkenean, denbora faltagatik etsi egin behar izan genuen, baina esperientzia polit eta harrigarri horrekin gelditu ginen.

ZUMAIAKO FLISCH-AK

Flyscha (hitz alemana da, fliessen hitzetik datorrena, guk "flixa" irakurtzen duguna) arroka sedimentario segida da, ozeano sakoneko orogenian sortua. Geruza gogor (kareharria, arbela edo hareharria) eta bigunez (margak eta buztinak) osatua dago, txandakatuz. Geruza hauek bertikalak zein horizontalak izan daitezke.

Guk ikusitakoak Zumaia Flysch-ak dira, munduko azaleramendurik garrantzitsu eta ikusgarrienetariko bat da dudarik gabe. Lurraren historia irakur daitekeen liburu ireki bat da, hainbat urtetako Flysch-ak ikus baitaitezke. Hauen segida Sopelan dago, nahiz eta ez duen hainbesteko garrantzia.

A ZE ESKAPADA EGURALDIAREKIN! HAMAIKE-TAKO GOXOA EGIN GENUEN BEHINTZAT!

Aurreko urtearekin konparatuz, eguraldi hobea izan genuen, nahiz eta zirimiri pixka bat egin. Flysch-etara iritsi ginenean haizea eta momentu batez euria jasan behar izan genuen, baina gero eguzkia ere ateratzen zen. Maiderekin badaezpada ere lehengo urteko hotzaz gogoraturik esne beroa, kola kao, kafe beroa eta pastak eraman zituen denon artean jateko. Suerte handia izan genuen autobusean sartu eta berehala sekulako zaparrada hasi baitzuen.





Niessen enpresa

Haurtzaro Ikastolako DBH4ko ikasleek ABB Niessen fabrika bisitatu dute Teknologiako taldearekin.

Hainbat makina daude etengailu elektrikoak egiteko. Horretarako, plastiko eta metalak erabiltzen dituzte eta eraldaketak egiten dituzte.

Ikusi dugu fabrika osoa automatizatua dagoela.

Enpresa hau 1914an Guillermo Niessen alemaniarrek sortu zuen.

Egun 120 langile inguru daude.

Duten makinaria azken teknologikoa da, eta ikusgarriak dira lanean diharduten beso robotikoak.

Lehenik metalen ataletik hasi dugu bisita eta moldeak nola egiten dituzten ikusi dugu, ondoren moldeak funtzionatzen ikusi dugu. Jarraian, metalen mekanizazio atalera pasatu gara eta nola moztu, tolestatu... ikusi dugu. Gero plastikoetara joan gara eta makinak eta produkzioak ikusi ditugu. Azkenik, muntaia automatikoa ikusi dugu, eta gure bisita bukatzeko biltegira joan gara.

Niesseneko langileei, bereziki Xabierri, eskerrak eman nahi dizkiegu egin diguten harreragatik eta izan duten pazientziagatik.

Mikel Aranburu



gure herriko Ondare historikoa

Azaroaren 8an, astelehena, Haurtzaro ikastolako 14 ikasle, Arte arlokoak, Oiartzungo ondare historikoak aztertzeraz eta bisitatzera joan ginen. Goizari hasiera emateko San Esteban eliza bisitatu genuen.

Bisitaren gidariak Joxemari Sanzberro eta Txurio izan ziren. Elizaren historia, egitura eta kontu bitxiak azaldu zizkiguten; hala nola elizak izan dituen aldaketan historian zehar, eta Oiartzun herriaren berezko kolorea ez dela urdina, gorria baizik.

Entzungo zenutenez, hamabiak laurden gutxi aldera kanpaien soinua entzun zen herri osoan; joleak gu izan ginen. Segidan, Manuel Lekuona Liburutegira joan ginen, eta hamaiketako egin genuen. Liburutegiaren beheko solairuan San Juan parrokia dago. Hau ere ikusi genuen. Azkenik udaletxera joan ginen herriko artxibo historikoa ezagutzera.

Gure ustez entretenigarria eta interesgarria izan zen bisita, gure herriko historiaren parte direlako ikusi ditugun lekuak.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Joxemari Sanzberro eta Txuriori hain ongi azaltzeagatik ibilaldi hau.

Uxue Barrenetxea eta Beñat Trigo



DBH 1. zikloko irakasleei *elkarrizketa*



Ezkerretik eskuinera zutik:

Pili Lizaso,
Ihintza Ostolaza,
Igone Otegi,
Edurne Iradi,
Josune Saizar,
Maitere Olanga,
Maider Lekuona,
Pilar Altuna,
Kontxi Begiristain eta
Iñaki Lertxundi.

Ezkerretik eskuinera behean:

Aritz Gonzalez,
Madalen Usabiaga,
Josu Arotzena,
Xabi Solano,
Antton Kazabon eta
Maribi Alonso.

Txinpart aldizkarian etapaz etapa, zikloz ziklo irakasle taldeak elkarrizketatu izan ditugu. Oraingoan DBHko lehen zikloari egokitu zaio. Horrela erantzun dituzte gure galderak:

1 Zeinek osatzen duzue ziklo hau?

Josu Arotzena, Antton Kazabon, Igone Otegi, Maribi Alonso, Maider Lekuona, Maitere Olanga, Aritz Gonzalez, Pilar Altuna, Ihintza Ostolaza, Xabier Solano, Edurne Iradi, Pili Lizaso, Iñaki Lertxundi, Josune Saizar, Madalen Usabiaga eta Argiñe Oiarbide.

2 Zein dira etapa honetako berezitasunak?

DBHko 1. zikloa LHtik DBHrako egokitzapena da, batik bat. Ikasleek zenbait aldaketa izaten dituzte: ordutegia, irakasle gehiago eta espezialistak denak, irakasgai gehiago, beren antolakuntza eta funtzionamenduan autonomia gehiago, etab.

Bestalde, lehen aldiz hautazko ikasgaien hautaketa egiteko aukera dute ikasleek.

3 Esan duzue lehen aldia izaten dela ikasleek hautazko gaiak aukeratu behar izaten dituztela. Nola bizitzen dute aukeraketa hau? Nola bideratzen dira hautaketa egokiak egin dezaten?

LHko 3. zikloko azken ikasturtearen amaieran irakasle DBHko 1. mailan eskaintzen den hautazkoen (Zientzia Tailerra, Frantsesa, Antzerki Tailerra) aurkezpena egiten zaie, eta honez gain, Tutorretzan hautaketa aholkuak ematen zaizkie. Gurasoek ere badute hitza, eta ikastolatik jasotako

informazioaren arabera, beren seme-alaben orientazioan parte hartzen dute. Azkenean, ikasleek erabakitzen dute hautazko irakasgaia zein izango den eta beren interesen araberrako hautaketa denez, gustura aritzeko parada dute.

4 Etapa honetan Ostadar proiektuarekin lan egiten duzue. Zein dira haren ezaugarriak?

Ostadarren programa proiektuetan oinarritzen da; eta, beraz, ikasleak unitate amaiera bakoitzean proiektua ekoizten du, landutako helburuak eta edukiak bereganatzeko.

5 DBHko ikasleek duten adina kontuan hartuta, ekintza osagarri berezirik egiten al da?

Bereziki proiektuei lotutako ekintzak egiten dira: Zientzia Astea, Mirandaola-Zerain, Planetarium...

Kanpotik datozen eta gure Hezkuntza Proiektuan txertaturik dagoen hainbat jardura ere egiten dira: Osasun Heziketa, Drogamenpeketasunaren prebentzioa, Sexu Heziketa, Bide Heziketa...

Horiez guztiez gain, ikastolako proiektu orokorretan parte hartzen dute ikasleek, besteak beste: Olentzero, San Tomas, Santa Ageda, Inauteriak, Eskuttun, Lexoti Saria, Eskolarteko Bertsolari Txapelketa...

Luze jardun dezakegu elkarrizketa honetan, baina beste baterako ere zerbait uztea komeni denez, oraingoan honekin aski dugu. Eskerrik asko!



Odei Astibia

Oiartzun, 1983



- 1 **Zer moduz bizi gaituk?** Oso ongi. Ezin kexatuko gaituk. Arraguan bizi nauk, eta, egia esan, oso ongi. Hor barrena jendea nola bizi den ikusita, pribilegiatuak gaituk.
- 2 **Zertan ari haiz oraintxe?** Gauza askotan aldi berean. Sei bat proiektutan ari nauk une honetan.
 - a) Hainbat musika proiektutan:
 - * Zozongo.
 - * Flamenko talde batean. Oscar Portugués gitarrajolearekin, perkusioa jotzen.
 - * Perkusio proiektu berri bat sortzen ere ari gara. DM3 izenarekin bataiatu dugu, eta hiru musikaririk osatzen dugu taldea: Javi Area, Iker Telleria eta ni neu.
 - b) Donostiako Orfeoian, astean lau egunetan perkusio klaseak ematen ari naiz.
 - c) Ugaldetxoko IURRITA gune sozio-kulturalean, 1. eta 4. mailako perkusio klaseak ematen ditut.
 - d) Bateria klase partikularrak ere ematen ditut.
 - e) Urtxintxa izeneko programaren barruan, begiraleei ikastaro trinkoak ematen ari natzaie Donostian, Eibarren... Guztira 30 bat begirale dira.
 - f) Zenbait ikastetxetan perkusio ikastaroak ematen ari naiz ikasle nahiz irakasleentzat.
- 3 **Zer duk ZOZONGO hiretzat?** Hasieran, disfrutatzeko, ongi pasatzeko, ikasteko, bidaiatzeko... Gero, proiektua handitzen joan da, indarra hartzen, eta orain nire lana da, baina disfrutatzen jarraitzen dut. Ate asko ireki dizkit Zozongok, musika munduko ate asko. Musikaren mundua goitik beheiti ezagutu dut Zozongori esker.
- 4 **Zer jotzen duk taldean?** Repenikea. Danborraren antzeko musika tresna.
- 5 **Nola hasi hintzen talde horretan?** Hasieratik nago bertan. Geuk sortu genuen. Orain dela sei bat urte sortu genuen. Calahorratik dei bat jaso zuen lagun batek, hango soinuaren gaua izeneko festa parte hartzeko eskatuz. Bi asteren buruan, zazpi lagun ezaguturiko taldea ginen, eta bertan jo genuen. Horrelaxe hasi, eta gaur arte.



- 6 **Zein da taldearen etorkizuna?** Une honetan gogoeta garaian sartuta gaude etorkizuna programatzen. Gaur egun hiru espektakulo mota ditugu. Horietatik bi kalean jotzekoak dira, eta hirugarrena ezkontzetarako eta antzeko festetarako prestatuturik daukaguna.
- 7 **Musika ikasketak?** Donostiako Musika Eskolan Lenguaje musical, Informática musical eta Bateria ikasi ditut. Horiez gaiz, Bateria ikasketak egin ditut nire kontura. Perkusio etnikoa ere ikasi dut Brasilgo eta Afrikako hainbat talderekin. Eta Gorputz Perkusioa ere ikasten ari naiz.
- 8 **Eta besteak?** Mecánica industrial, Zamalbiden. Kar-kar-kar!
- 9 **Ikastolako egunak, urteak gogoan, zer oroitzapen?** Ikaragarri onak. Zoragarriak. Aukera guztiak izan nituen ikastolan nire lanean hobetzeko. Ni ere bihurri samarra izaki, eta irakasleek sekulako pazientzia izan zuten nirekin, harrigarria. Batez ere Pilik. Irakasleek sekulako lana egin zuten nirekin. Oso edukazio ona jaso nuen ikastolan, eta etxean ere bai. Horretaz oso harro nago.
- 10 **Beste zaletasunen bat?** Arrantza egitea eta buzeatzea.
- 11 **Oraindik oso gaztea haiz. Zer daukak bizitzan egiteko?** Ikasten jarraitu, inoiz ez delako prozesu hori amaitzen. Eta beti gehiago ikasteko interes hori, ez nuke inoiz galdu nahi, horri beti eutsi nahi nioke.
- 12 **Zerk pozten hau gehien?** Oiartzungo IURRITA izeneko sorkuntza zentroa ondoan edukitzeak. Nire musika proiektu guztiak hortxe sortu direlako.
- 13 **Eta tristatu?** IURRITA kenduko ote duten beldurrak. Ez ahal da zurrumurru hori inoiz betekol!
- 14 **Zer esan nahi diek ikastolako ikasleei?** Gustuko duten bidean konstanteak izateko, beren ametsak bete nahi badituzte. Ni behintzat, konstantzia horri esker ari naiz nireak betetzen. Sinistu deza-tela beren aukeran eta beren ahalmenean. Inportantea, horretan guztian etxekoan laguntza eta konfiantza. Nik izan dudana bezala.
- 15 **Besterik?** IURRITA BIZIRIK!





Magisteritzako ikasleak

Hautzaron praktikak egiten



June, Garazi, Maddalen, Eneritz, Igone, Irati, Yuri-ma, Sohalge, Izaro, Bea, Mikel, Edurne, Eneko eta Usoa. Azken aste hauetan, ikastolan izan ditugu hamalau gazte hauek. Hamalau neska mutil, irakasle izateko bidean, ikasle.

Orain arte unibertsitatean ibili zarete, klasean. Egun hauetan ere klasean egon zarete, baina HH eta LHko haurrez inguratuta. Zer sentitu zenuten lehenengo egunetan?

Lehenengo egunetan, gure papera nola bideratu ez genekiela ibili ginen. Behaketa soila egin, parte hartu, noraino parte hartu... kokatu beharra genuen. Gainera, ikasleek ez gintuzten irakasle moduan ikusten, lehen hezkuntzako 3. ziklokoek behinik behin. Hala ere, uste baino harrera goxoagoa izan dugu eta irakasleen laguntza oso baliagarria izan zaigu.

Espero zenuten bezalakoak al dira Magisteritzako praktikak?

Ez dira guztiz espero bezalakoak izan, behaketa lana egingo genuela uste genuen, hori egin behar genuela esan baitziguten. Parte hartzen ari gara, uste baino gehiago eta guretzat askoz aberasgarriagoa izaten ari da.

Haur hezkuntzako gelak, gainera, espero baino lasaiagoak dira. Oso giro erlaxatua dago eta hori ona da haurrentzat.



Irakasle izan nahi duzue, eta horretarako prestatzen ari zarete. Apunteetan ez dituzuen egoerekin topo egi al duzue praktiketan?

Egia esan, oso egoera estereotipatuak jaso ditugu eta konturatu gara ikasle bakoitza mundu bat dela eta bakoitzari erantzuna ematen ikasi beharko dugula. Teoria beharrezkoa da, baina praktiketan errealitatea-ekin egiten duzu topo, eta egun gutxiago izan arren, askoz gehiago ikasten da.

Zer nabarmenduko zenukete egun hauetan bizitu edo ikasitakotik?

Irakaslearen ikuspuntutik begiratzen jarri garenez, konturatu gara klasetik kanpo egiten den lana izugarria dela, aurretik dena plangintzatua eta prestatua dago eta uste baino lan gehiago dago. Pazientzia eta ikasle bakoitzari erantzuteko inplikazioa oso handiak dira. Ikasle ginenean ez genuen hori dena ikusten eta lan mordoa egin beharko dugula ohartu gara.

Zuetako asko, gainera, Hautzaro Ikastolako ikasle ohiak zarete. Bertako ikasle izatetik irakasle izate-rako aldaketa hori nola bizitu duzue?

Aurrerapen eta aldaketa ugari ikusi ditugu: teknologia berriak, materiala, metodologia... eta baita irakasleen ardura edo lan egiteko moduan ere, baina ikasleak ez dira hainbeste aldatu. Oso identifikatuta sentitu gara, nahiz eta gizarte aldatu batean bizi diren. Oroitzapen ugari etorri zaizkigu burura. Halere, ikusi dugun aldaketarik handiena irakasle gelako kafe makina erabili ahal izatea izan da eta ikastolak hartu duen tamaina, ia galdu egin gara!!

Animo guztioi eta segi lanean, ea laster lankide moduan topo egiten dugun!



Aurkitu laukian galderetako animali izenak

I	B	B	A	S	U	R	D	E	7
I	A	I	R	O	X	T	9	A	N
Z	A	U	G	A	S	15	10	F	U
U	A	L	A	O	K	14	U	A	A
R	A	E	L	E	B	13	S	R	5
D	A	I	H	E	B	12	O	I	B
E	A	O	Z	O	Z	11	A	J	A
A	O	N	A	R	R	A	3	6	L
4	T	X	A	K	U	R	R	A	E
2	T	X	I	M	E	L	E	T	A

- Salto egiten du, uretan bizi da, oso azkarra da eta mutur luzea du.
- Hiru fase ditu, eta hegoetan kolore biziak ditu.
- Oso ondo ikusten du, hegan egiten du, mendian bizi da eta harraparia da.
- Gizakiaren lagunik hoberena da, eta katuak jarraitzen ditu.
- Munduko animalia handienetakoa da, eta batzuek hortzetan bizarra dute.
- Oso lepo luzea du, eta zuhaitz handietako hostoak jaten ditu.
- Adarrak dituzte, beti elkarrekin ibiltzen dira, eta estanpidak egiten dituzte.
- Euskal Herrian asko ehizatzen da, eta kanpoaldera ateratzen zaizkien letagin txikiak ditu.
- Txikia da, mokoa txikia du, hegan egiten du, eta nonahi aurki dezakegu.
- Pakearen ikur bihurtu da, eta gehienetan, grisa eta txuria izaten da.
- Beltza da, eta beleak baino kolore ilunagoa du; gainera, maiz erabili ohi dugun euskal esaera zahar bat dago harekin lotua.
- Bere esnea edaten dugu, eta ahuntza baino handiagoa da.
- Zozoak baino kolore argiagoa du, eta gainera, esaera batean aipatu ohi dugu.
- Australian bizi da, zuhaitzetan, eta oso gutxitan jaisten da lurrera.
- Katuak jaten du, txikia da, eta etxeetan sartzen da maiz samar.

Gurutzegrama

1	2	3	4	5	6
7					
8			9		
10		11		12	
13			14		
15					

Ezker-Eskuin


- Zerbait ematen duena
- Behar den unean
- Iridioaren sinboloa
- Erdi hitz-elkarketan (alderantziz)
- Zaletasun atzizkia
- Izan ezik, salbu
- Erorka
- Zikinkeriak dituen

Goitik behera

- Egintzaz
- Bizkaiko herria
- Argonaren sinboloa
- Pausaldi (alderantziz)
- Pinpirin, galai
- Ezezkoa
- Musika taldea
- Nori atzizkia

Egin ezazu sudoku hau!

				1				4
5							8	2
		3				6		7
			6			2	5	1
		8				4		
1	6	7		2				
6		2			7			
4	9							8
7				3				



HH1 haur Hezkuntza 1

Begira zer nolako haur ederrak hasi diren ikastolan!



HH 1A

Ezkerretik eskuinera eta atzetik aurrera

LIDE, GEXAN, MANEX, PEIO, UNAI, ANDONI, URTZI, OIHAN, OIHANE, IRURI, MAREN, MARKEL G, MADDI L, MUSKILDA, ELENE, GOIURI, MARKEL V, IRAIA, ELORRI, JARE, MIREN, NORA, MADDI J.

Argazkian falta da: OIER.



HH 1B

Ezkerretik eskuinera eta atzetik aurrera

MADDI, INTZA, HELENE P, ARIANE, UNAX, IZARO, ANGE, LEIRE C, OIER, EKI, HELENE E, ARAITZ, OIHAN, ARHANE, ARATZ, MIKEL, UXUE, OLATZ, LEIRE I, ANARTZ, IZAR.

Argazkian falta dira: JON, EGIAR.



HH 1C

Ezkerretik eskuinera eta atzetik aurrera

XABIER, LOREA, JUNE, IZARO, ALAIN P, KRISTINA, ISELA, ARITZ, AITANA, PABLO, AMAIUR, NAHIA, JULEN, KOLDO, PERU, MARKEL G, IZAR, NOA, ALAIN M, JON.

Argazkian falta dira:
MARKEL M, NAHIKARI, XEBAS, ENAITZ.



Mendiburu kalea, 2 · ☎ 943 49 47 19



TAJO
Industrias Tajo, S. Coop.



GABRITASUN INDUSTRIALERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

GOIEKO S.L.
Bidaurre Ureder Industrialdea
2. Pabisa - P4 partzela
Ventas de Irún-Auzoa - 20105 IRUN
Tfnoa.: 943 634 536 • Fax: 943 634 537
goieko@goieko.com

construcciones
ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 · Postakutxa 16 · Fax 943 493 772

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n · 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 · Fax: 943 260 250



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea, 13 / 6. lokala · 20180 OIARTZUN · ☎ 943 491 641



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Salmeta · Mekanika · Karrozeria

Ihurrita Bidea, 13 / 1-6 lokalak · 20180 OIARTZUN · ☎ / faxa: 943 491 848 · 943 494 136



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapata + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN
☎ 943 26 04 26 / 943 26 03 91



- IBILGAILU IA BERRIAK
- URTEBETEKO BERMEAREKIN
- 120 HILABETERAINOKO FINANTZAKETA

☎ 943 260 065
Polígono Talaia, 6 · 20180 OIARTZUN



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 · Pol. Lanbarren · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 375 · Fax 943 493 462



GEZAK S.L.
BARRIO DE SAN JOSE DE LOS RIOS
C/ SAN JOSE DE LOS RIOS, 10
20180 OIARTZUN (GUZUEN)

